

Joxe Azurmendi, elkarrizketa

Maisu handi bat, jeinu bat zela esan zidaten berarengana jo aurretik. Maisu handi baten eta jeinu baten aurrean egondako sentsazioarekin irten nintzen Donostiako Filosofia fakultateko Joxe Azurmendirekin honako elkarrizketa amaitu ondoren. Errekurtso intelektualetako iturri emankorra dugu Zegamako "alemana". Ulertezinezko jokabide eta dinamikak ulertarazteko adore eta kemen nahikoak ditu. Ez da kikiltzen gehiengoaren diskurtso "faltsuaren" uretatik murgildu eta ateratako ondorioek indarrean dagoen egi ofiziala hankaz gora jartzen badu ere. Eta bost axola dio, ofizialtasunak "biolentoen" espaloian ezartzen badu. Kaskarkeriaren munduan salbuespen pozgarria.

elkarri: "ez dut ezer ez ulertzen", izan da abendu partean nagusitu den espresioa. Urrun geratzen badira ere, abenduak izandako hainbat gertaera inoz ez bezala astindu zituen bazterrak. Zein izan da gertaera desberdin horiekiko zure hausnarketa?

Joxe Azurmendi: nik ere ez dut ezer ulertzen. Inork ez du ulertu. Hor badaude bi puntu aztertzeko: alde batetik, badago Madrilekiko halako desesperazio sentsazio bat. Egiten direnak egiten direla, Legebiltzarrak zerbait eskatzen duela, Gotzaiek zerbait esaten dutela... Badirudi dena alferrikakoa dela eta azkenerako ez dakigu zer egin behar den. Orduan, bazirudien zerbait egiten asmatu genuela, eta itxaropen handia sortu zen ELA, LAB, EHNE eta Elkarriren arteko ekimen horren inguruan. Nik ez dakit itxaropen hori errealista ote zen edo ez, izan ere ez dakit hortik zer lor zitekeen. Nire susmoa da Madriletik behin eta berriro barregarri utziko zutela ekimen hori ere, agian, eta ezerezean geratuko litzatekeela. Baina gutxienez gaurko egoera txikitu honetan itxaropen izpi bat sortu zuen. Bakeari begira, agian ez zuen berehalako ondoriorik izango, baina gutxienez geure desesperantzari aurre egiteko baliagarria zatekeen. Bestetik, hori pikutara joan da. Baina azken egunotan egin diren azterketa guztiak irakurri eta gero, orain urte batzuetatik hona diferentzia nabarmena ikusten dut: Gaur ETArri buruz ez dakigu ezertxo ere. Nik ez dakit Atutxak eta Mayor Orejak zer dakiten, baina guk ez dakigu ezer. Analisi baterako funtsezko datuak ez dakizkigu. Beraz, gertatu denaz analisi bat egin nahi izatea ezinezkoa egiten zait. Agertu diren irakurketa posibleak ere ez ditut oso seriooki hartzen. Polarizazioa legea baldin bada, eta Madrilek ez badu beste ezer onartzen, bada, ETArri ez zaio interesatzen polarizazioa besterik. Hau logika elementala da. Eta berdin: Madrilek ETA besterik ez badu aintzakotzat hartzen, ETArri berak ere tartean ematen den guztia anekdotatzat hartuko du, eta tartean Bilbon deituta zegoen manifestapena.

elkarri: Txillardegiren hitzak erabiliz, "goranzko abiadura sendoa brauki moztu da... Ez geunden oraindik helburuan, bai ordea helbururako bidean". Zuk ere pikutara joan dela esan duzu. Horrenbesterako dela uste duzu?

J. Azurmendi: pikutara joango da guk pikutan uzten badugu. Oraingoz ez da ikusten elkarganatze bide honek zer aukera efektibo berriak sortuko dituen. Bestalde, ebidentzia dirudi orain arte bezala sakabanatuta, elkarrekin etsaituta, ibiltzeak onik ez ekartzeaz gain bizitza ere ezinezkoa egiten digula. Gauza bat da egoera horretan ezin dugula jarraitu eta beraz irtenbide batzuk bilatzearen beharra, eta bestea da argi eta garbi izatea noraino irits zitezkeen elkarganatze horrekin. Hori ere ez dugu oso argi. Gauza ez da aztertzea soilik elkartu egin behar garenik, horretarako onartzen bagaituzten baizik. Polarizazioa gutxiagora edo gehiagora joan dadin gure eginkizunetako bat izan daiteke, eta polarizazioa negoziatoruntz bideratzeko eta posible izateko ahalegina emankorra izan daiteke. Baina besteek, hots, ETArri eta Gobernuak, esan behar digute onartzen gaituzten edo ez. Dena dela, garbi eduki behar da, ELA, LAB edota elkarriren eginkizuna, negoziazioaren aldeko baldintzak lortzen joatea dela eta ez negoziatzea. Gauza horiek nola egin behar diren asmatzea ez da erreza. Ez dut uste ETArri azkeneko ekintzak ekimen hau pikutara bidali duenik, baina berak abisu bat eman du jakinarazteko zein baldintzak berak ezingo litzatekeen onartu. Gobernuak, aldiz, etengabe ematen ditu bere abisuak, errezagotz daukalako.

elkarri: ondorio bezala ikusten denez, ez ETAk ez Espainiako Gobernuak ez dute atsegin tartean agente berririk sartzea. Hirugarren esparruarena batzuentzat zein besteentzat gogaikarria bilakatu daitekela pentsatzen duzu?.

J. Azurmendi: teorian behintzat, bai batak zein besteak erdiko tarte hori beraientzat hartu nahi dute, eta bistan da Madrileko Gobernuak azken urteotan ahalegin handiak egin dituela horren inguruko masa sozial zabal hori gauzatu ez zedin. ETAk agian masa sozial guzti hori ez du nahiko bereganatu, historiak berak erakusten duelako masa osoak ez direla bortxazko aukera baten alde sartzekoak izaten. Baina bere masa propioa edukitzea nahiko du eta hori sendo izan. Hori ezinbestekoa da edozein mugimenduen aurrean. Efikazia mailan ari naiz. ETAk, arma eta komando batzuk izateaz aparte, lagungarri gerta dakioken masa sozial bat behar du. Beste hainbeste Madrilgo Gobernuak. Ez batekin eta ezta bestearekin dagoen jendea printzipioz ez bati eta ez besteari interesatzen zaio holako momentuetan. Horrek ez du esan nahi denok horiei interesatzen zaiena egin behar dugunik, eta horiei interesatzen zaien moduan.

elkarri: hain zuzen ere, elkarriketa eta negoziazioaren alde egon daitekeen eta dagoen masa sozial benetako kaltetua izan zela esan zen.

J. Azurmendi: bereizi egingo nuke. Beharbada, alde bat -Gobernua- "ez dut negoziatuko" eta horrelakoak esaten ari den bitartean, negoziazioaren aldeko mugimendua traba handi bat bilaka daiteke. Negoziazioa beharrezkoa dela esan behar zuten instantziek esan dute, eta burla egin zaie. Eta agian hori errepikatzen jardutea, besteek horrelakorik entzun ere nahi ez dutenean ez da batere interesgarria izango. Negoziatu egin behar delako diskurtsoa mantentzea eta, era berean, ETA soberan dagoela esaten aritzea agian ez du zentzu gehiegirik. Ni ez naiz inor ELAk zer esan behar duen edo ez esateko, baina esan egiten du. Orduan, onartu behar da ETAREN analisisian ez dela negoziazioaren beharra soilik eskatu, gehiago ere badela.

elkarri: beraz, konponbidea ETA eta Gobernuaren artean eman behar da soilik zure ustez?

Joxe Azurmendi: niretzat bai. Baina ETAREN eta Gobernuaren arteko negoziazioen prestaketa ez dute derrigorrez ETAk eta Gobernuak burutu behar. Negoziazioa eman dadin bideak irekitzeko gauza asko egin daitezke. Beste hipotesiren artean, Noruegako esperientzia dugu: intelektualak eta irakasleak egon ziren tartean. Gero, negoziazioaren orduan ere, mahai baten aurrean egon daitezke alderdi politiko desberdinetako ordezkariak, nahiz eta beraiek soilik ETAREN tesiak ordezkatzeko egon. Ez dute derrigorrez barne ministrariak eta ETAKO komando buruak egon beharrik. Mahai gainean ETA eta Gobernuaren tesiak egon beharko dira. Ez dakit hori zer formularen bitartez lor daitekeen, eta ez zait ajola.

elkarri: edukien eztabaida datorkigu mahai hipotetiko horren osaketaren ondoren... Zeintzuk, zertaz eta noren izenean negoziatia dezakete. Hori inork ez digu argitzen.

J. Azurmendi: nik uste dut horretan sartzea hanka sartzea dela. ETAk zer negoziatu nahi duen ETAK daki eta ez beste inork. Hori jakiteko ETAREKIN hitzegin beharko litzateke. Hitzegiten denean jakingo da ETAREN eskakizunak onargarriak diren edo ez. Baina orduan bakarrik. Beste guztia rolak usurpatzea da. Eta batzuetan egin egiten ari gara.

elkarri: gertakizun tamalgarrietatik ere beti ateratzen da ikasgairik edo kontutan hartzeko ondorioarik. Zein azpimarratuko zenuke oraingo honetan?

J. Azurmendi: nik gehienez ere esango nuke jarraitu egin behar dela. Eta, beraz, LAB eta ELAREN arteko elkarlanak aurrera egin beharko luke. Baina ez bakarrik abertzaleen artean. Oso garrantzitsua izango litzateke ezker ez abertzaleko jendea ere hor integratzen joatea. Niretzat oso pozgarria izan

da alderdi komunistaren jarrera. Negoziazioaren asmoaren inguruan edo giza eskubideen inguruan ahalik eta abaniko zabalena lortuko balitz, hau da, minimo batzuren gainean eta besterik gabe oraingoz -nik ez nuke ezta autodeterminazioa ere sartuko- jarrai dezatela. Eta Madrilgo Gobernuak argitu dezala bere jarrera, esan dezala zer eta nondik ez dagoen prest sartzeko. Baina ez digu balio ez duela hitzegingo esateak, hori kriminala baita. Biolentzian erru handi bat hori esatean dago. Jarrera horrek ETARI ate guztiak isten dizkio. "Ez dut hitzegingo" esaten duenak, de fakto biolentzia nahi du. Izan ere gaur egun burutik sano dagoen batek ezin du eskatu armak uztea besterik gabe. Hori umekeria estupidoa da, hogeita hamar urteren buruan.

elkarri: Estatuaren jarrera ertsiaren aurrean Euskal Herriak biolentzia ez beste aukerarik ez duela esaten da, hain zuzen ere Estatuaren interes desberdinen kontra eraso egitea.

J. Azurmendi: ez da nire tesia hori, baina tesi hori badagoenez eta masa sozial handi batek euskarria ematen dionez, eta gutxienez erakunde organizatu baten tesia denez, eta Gobernuak hurrengo hauteskundeetan gehiengo absolutua bilatzen duenez, momentu honetan denok argi eta garbi ikusten dugu ETARI ez zaiola beste irtenbiderik uzten. Euskal Herriak, eduki, aukera asko dauzka, suizidatzekoa barne. Aukerak oraindik asko dira eta guztietan ahalegindu behar da. Ezin da esan Euskal Herriari beste aukerarik uzten ez zaionik. Euskal Herria gaur egun konzeptu oso ekibokoa bihurtzen ari da. Baina Euskal Herrian legezko alderdi guztiei, HB eta ETA ezik, uzten zaie beren tesiak defendatzen. Eta HBri itxuraz bakarrik utziko zaio. "Euskal Herriari ez zaio uzten", ez da nire gustuko formulazioa. Euskal Herriko parte batzuei uzten zaie egiten beren analisisen arabera egin nahi dutena; beste batzuei ordea ez. Eta ahal diren zikinkeriak eta txakurkeriak egiten zaizkie. Zangoztraba eta oso joku zikina erabiltzen da HBekin. HBk ere egiten dituela zikinkeriak? Justizia eskuan daukanari eskatu behar zaio justizia egitea.

elkarri: "Vasconia, entre la tragedia y la esperanza", Gurutz Jauregiren liburuaren izenburua etorri zaio gogora ezkortasunez jota dagoen bati baino gehiagori azken asteotan. Berak zioenez Euskal Herria fikziozko herri bat izatetik herri fikziora pasa da.

J. Azurmendi: ez dut bere liburua irakurri. Nik ez dut inolaz ere uste fikziozko herri batean gaudenik. Alderantziz, errealitate oso gordin eta tragikoa bizitzen ari gara. Hemen fikzioak oso gutxi daude. Oinazea eta mina oso erreala da eta borroka ere ikaragarri erreala. Fikzioak beste maila batekoak izango dira, erakundeetan ematen direnak kasu. Legebiltzarrak presoengatik inguruan eskakizun bat egin eta ondoren emaitza kontutan hartzen duzuenean, fikzioa Legebiltzarra bera dela pentsatzen duzu. Baina errealitateak, Mayor Orejarenak dira.

elkarri: herri honen atomizazioari aurre egiteko bildu egin beharko ginatekeela ondorioztatu dut zure hitzetan arestian.

J. Azurmendi: bildu egin beharra dago gutxienez orain bizi dugun ondoreza gainditzeko. Politikoki eta sozialki txikituta dagoen herri batean automatismoak sortzen dira eta bakoitza bere kaiolan sartzen da beste guztien errealitateei muzin eginez. Jokaera hori ekidinezina gertatzen ari bada ere aurre egin behar zaio. Oso mingarria egiten zait niri. Nahiago genuke elkarrenganako onarpen bat berriro posible izan dadin. Ez berdin pentsatzeko, jarrerak hurbiltzen hasteko baizik. Gaurko krispazioa gainditzeko ikaragarria da gogoia. Gauza garrantzitsu batzuetarako elkarrekin gaudela baldin badakigu, orduan egin geniezaioke aurre egoerari. Sentsazio hori ordea galduta dagoela ematen du. Inork ez du pentsatzen adibidez independentziaren leloak elkartzeko gaituenik baina badaude beste hainbat gauza elkartzeko gaituenak. Gure eguneroko bizitzan daukagun sentsazio ikaragarri honetatik askatzeko batasuna izan daiteke arrazoi nagusia. Autismoak ez garamatza inora, jada hor bait gaude.

elkarri: zientziak oraindik ez dio autismoari irtenbiderik aurkitu.

J. Azurmendi: horrek ez dauka irtenbiderik, hori kalamidade hutsa da eta sufrimendu askoren iturria. Uste dut askok oso disgustora gaudela egoerarekin.

elkarri: "Demokratak eta biolentoak", zure azkeneko liburutik atera dudan ondorioetako bat zera da: demokrazia da bide egokienetakoa, edo egokiena, baina ez egun ezagutzen dugun eredu. Hau da, gehiengoaren diskurtsoaren faltsutasunean sakondu nahi izan duzula iruditzen zait. Horrela ikusten al duzu?

J. Azurmendi: bai. Demokrazia izan liteke herriaren borrokaren lorpen bat, Frantziako iraultzaren kasu, edo EE.BB. betako independentzia. Orduan demokrazia errealaren hastapena da eta borroka baten ondorioa. Borroka hori beti gutxiengo batek egiten du. Irabazten badu, demokrazia abian jartzea lortzen du. Diktadura minutu batean ezartzen da. Demokrazia, aldiz, poliki poliki egiten da. Beraz, demokrazia izan daiteke borroka baten ostean herri batek lortzen duena, eta borrokaren produkto bezala antolaketa jakin bat jartzen da martxan. Espainian demokrazia ezarri digute diktadura ezartzen den moduan. Beharbada diktadurarekin ohituta zegoen herrian oso ongi funtzionatu duena, baina ez Euskal Herrian. Ezin da esan "etorri honera oinarri hauek jarri ditugu eta". Ez, hori gezurra da. Hemen ez daude demokraziaren oinarriak, eta hemen bere eginkizunetako bat da demokrazia posible egitea. Borroka errealak izan den leku guztietan horrela izan da. Harrokeria irudituko du, baina demokrazia etorri zenean Madrilen ez zegoen borrokarik. Hemen bazegoen borroka hori eta oraindik badago. Beraz, demokraziaren antolaketarako egoera oso desberdinak dira. Hemen oraindik ez dauzkagu eskatzen diren eta beharrezkoak diren oinarriak demokrazia jasotzen joateko.

elkarri: Lluís Llach kataluniar abeslariak eta Jose Saramago idazle portugaldarrak bat egin dute bi elkarrizketa desberdinetan demokraziaz hitzegiterakoan: "demokrazia hau gezur borobila da", zioten biek.

J. Azurmendi: ados nago. Baina batzuek besteei inposatu nahi izan dioten gezurra da. Batzuek gero gezur hori irentsi egin dute oso eroso delako hori, eta tresna asko dagoelako hain zuzen ere gezur hori zuritzeko. Zoritxarrez konforme nago.

elkarri: zure liburutik beste ondorio bat atera dut. Oker banago zuzen iezadazu. Ematen du herri honetan behintzat demokrazia bera, gaurko terminoetan ulertuta, borroka armatua baino kaltegarriagoa izan daitekeela.

J. Azurmendi: ez dakit, horrela esanda, ez litzaidake gustatuko ondorioa hori izatea. Baina beharbada ez da guztiz okerra. Biolentzia legitima lezakeena irtenbide batzuk bilatu nahi izatea litzateke. Nire irakurketan behintzat, biolentzia horren ostean demokraziak etorri beharko luke, elkarbizitzaren antolaketa modu egokiago bat bideratuko duena, alegia. Demokrazia ulertzen bada ordea historiaren azkeneko gauza bezala, hots, iritsi gara eta planto, bada, gezur famatu hori bihurtzen da. Biolentziak, definizioz, soluzioa bilatu nahi du. Baina gaur eta hemen demokraziak definizioz soluzioa ukatu nahi duela uste dut. Orduan demokrazia hau kuestionatu egin beharra dago, bere lehen eginkizuna asumitzen ez duelako. Traba bat bihurtzen da.

elkarri: gero eta zailagoa izango duzu zuk "biolentoen" estereotipetik libratzeko, ez?

J. Azurmendi: bai. Demokrazia honi nik kritikatzeko diodan gauzetako bat polarizazio egoera batean ideiak Franquismoan bezain primitiboak izatea da. Biolentziaz jotzen da kuestionatzen duen edozein gogoeta. Gaur propaganda ofizialarekin bat ez datorrena, "quien no condena es un asesino" esaten duen hori, berehala identifikatzen dute espaloi batean. Inkisizioaren herrian jarraitzen dugula agerian uzten du.

elkarri: Joxe Azurmendik ez omen du inoiz ETA diskutitu izan. Zure pentsamendu filosofikotik abiatuta, zer nolako kontsiderazioa egiten duzu borroka armatuaren erabilpenaz Euskal Herrian?

J. Azurmendi: bai, egia da. Baina, ongi erantzuteko galdera honek maila asko izango lituzke eta zaila da inprobisatzea. Bai hezkuntzaz, bai tenperamentuz, pertsonalki neuretzat soluzioa oso garbia daukat. Bortxaren aukera neuri ez zait inoiz aukera erreala bezala eman, nik onartu ahal izatekoa bezala. Bakoitzak bere kontzientzia du. Baina bizi izan naiz biolentziaren aukera eman zaienekin, intelektualki asumitu egin dutenekin. Razionalki nire jarrera bezain logikoa zen; moralki, nire jarrera bezain morala zela pentsatu izan dut beti. Eta politikoki hori baloratzen ez dakit. Politikoki on edo txar bezala baloratzeko betiko elementuak aztertu beharko nituzke: zer indar real bilduko dugu, zer aukerak ditugu helburuak lortzeko, eta abar. Politikoki ez dut inoiz eztabaidatu ETAREN aukera. Hortaz jarduteko inoiz ez bait dut izan informazio erreala eta zehatza. Hala ere inoiz ez dut sentitu neure burua gai ETAREN fenomenoaren aztertzeko. Uste dut gaurko gizartearen hori eztabaidatzeko tresnarik ez dugula. "Bizitza sakratua da" edo "biolentzia oro salagarria da" esanez ezin da borroka armatua eztabaidatu. Hori tranpa hutsa baita. Hori da mendebaldeko kulturaren daukagun tranpa handia. Gure gizarteak, hori esaten duen bitartean, udaltzainei pistola ematen die, eta urtero Estatuan aurrekontu bat dago armentzat, eta Estatu mailako kargurik ohoragarrienetakoa militarra izatea da. Niretzat ETA errealitate bat da. Herri honetan euria dagoen bezala dago ETA. Herri hau denaren datu bat da niretzat. Ez ontzat ez txartzat ezin nezake hartu. Abentura etiko eta politikoa da, humanoa ere. Errespetu handia merezi dit. Nik ez dut ere inoiz Eusko Jaurlaritza kuestionatu. Ezta Eliza Katolikoaren esistentzia. Errealitatearen definitzailatzat hartzen ditut elementu horiek. Eta ikasleei beti esaten diet, errealitatea bera eztabaidatu edo ukatzen duen filosofoak hanka sartzen duela. Errealitatea den bezala hartu eta irakurketak egin beharko lituzke, baina errealitatean oinarrituz. Errealitatea interpretatu baino lehen aukerak egiteko joera handia dugu, errealitatea bera ukatzeko eta desegiteko. Lehenengo ukatu egiten dugu eta gero interpretatu. Nik uste dut esan behar dugula: hor dago, ezer ez dago kausa gabe, zer egiten dugu orain.

elkarri: errealitatea ez da objetiboa. Bakoitzak modu batean ikusiko du.

J. Azurmendi: nik esango nuke, nire interpretazioak berak ere maila kontraesankorrak dituela. ETARI buruz ez naiz abstenitzen soilik. Nik kontsidera nezake ETA herri honen tragedia ekidinezin bezala. Ez du horrek esan nahi analisi simple batean oinarritzen naizenik. Ni ez nago ETA oso ondo dagoela esaten dutenen artean baina ez nago ere Jaurlaritzari nire onspen osoa emateko. ETAREN defentsa nazional bat seguru asko ez da erraza, baina ETA gabeko herri honen etorkizunaren defentsak ere ez du oso erreza ematen ikusten denez. Euskal Herriak gaur adinako autonomia izan ez duela esaten dutenen aurrean, nik zera diot: "sekula ez bait gara XX. mendean bizi izan!". Horrelako arrazoiekin tontotzat hartzen gaituzte

elkarri: ETA herri honetako tragedia historikoren adierazleetako bat dela esan duzu. Zer ulertu behar da hortik?

J. Azurmendi: nik uste dut benetan historia ikaragarri batek esplikatzen duela egoera hau. Oso urruti hasten den historia: karlistadak, foruak, gerra zibila, herriaren desartikulazioa eta abar luzea. Ondorio latzak ekarri ditu. ETA ez da sortu eta ez da bizi ezerezetik. Horregatik diot ETA herri honen tragediaren produktu bat dela. Tragedia horretan tragediaren elementu bat ere bai une berean. XIX. mendean erdialdea hasita, ez dugu historia normal bat izan, tragikoa baizik. Bakea nahi badugu, abiapunturako kontutan hartu beharko litzatekeen datuetariko bat da.

elkarri: absurdo batean bizi gara?

J. Azurmendi: Absurdistanen. Gure diskurtso publiko eta "demokratiko" guztia bestea anulatzearen eta ez arrazoitzearen mailan geratzen da. Adibidez, Setieni esaten diotenean inork ez duela aukeratu eta beraz isilik egoteko, nik pentsatzen dut: eta erregea? Nork aukeratu du? Eta zeinek esaten dio isilik egoteko. Horregatik Absurdistan. Hemen arrazoitzeko modua, fitxa oso mugimendu oso txikiekin kontraesankorra dela deskubritzen da.

elkarri: aurtan hauteskundeak izango ditugu. Abstentziora jo beharko ote dugu berriro?

J. Azurmendi: nik hauteskundeak erlatibizatzen ditut. Daukagun egoeran hauteskundeek erakutsi digute funtsezko arazoak konpontzeko tresna errealak ez direla.

elkarri: hauteskundeetatik, ordea, besteak beste, kultura edo industria kontseilarien kargurako pertsonak eta ideologi konkretuak irteten dira.

J. Azurmendi: oinarriak ongi jarri eta gero hauteskunde sistema batek funtziona lezake gure arteko elkarbizitzak boterearen partiketan nola antolatu erabakitzeke. Nire susmoa da oinarriak jarri gabe daudela. Eta oinarritzkoak izan beharko lirakekeen elementuak, hizkuntza, edo biolentzia bera, inoiz ere hauteskundeetarako polemikarako izan beharko ez luketeenak, gaur egun propagandaren objektu dira eta beraz ez zaizkit interesatzen. Ezin da esan hauteskundeetan hautatuak izan direnak herriaren ordezkariak direnik, diruaren, hedabideen eta kanpaina antolatzaileen ordezkariak direla baizik. Hala ere, beste egoera batean interesgarriak izan daitezke. Oraingo egoeran ez asko.

elkarri: "etorkizunari begira, argi dago: hemendik ehun urtera edo euskal nazioa gara edo ez gara ezer izango", irakurri dizut. Nola egingo da nazio hori?

J. Azurmendi: ehun urtearenak esan nahi du horrelako mugimenduek denbora behar izaten dutela. Gauzak erritmo bat izan behar dute. Euskal Herria nazio bat dela Leizarragarengan oso argi zegoen, ez da egia hori XIX. mendeko gauza denik. Orain, berriz, berriro ilun dago. Ez dakit zer formularekin baina ehun urteren buruan, pixka bat mugitzen bagara, berreginda egon gintezke. Erritmo hori galtzen badugu, zanpatuta eta hilik egongo gara. Baina berriro herri bat eta nazio bat izateko egin beharra dagoen guztia ez da politikaren eremura mugatzen. Ekonomia, ikerketa zientifikoa eta teknikoak; borroka ere egin beharra dago, eta poesia ere bai.